



Badaude itzulpen automatikoak egiteko [ustez] balio duten programa informatikoak. Horien emaitzak harrigarriak bezain gorabeheratsuak badira ere, nik gauzatuta ikusi nahi nukeen programa zein den esango dizuet: euskara batutik euskalkietara eta euskalkietatik euskara batura testuak pasatzeko programa bat. Adibidez, nik testu bat idatzi dut euskara batuaz eta orain bizkaieraz jarri nahi dut. Sintaxiak ez luke zertan aldatu beharko; hau da, hor ez da itzulpenik egin behar, soil-soilik terminologia, aditz aspektuak eta zenbait esapide aldatu, besterik ez. Itzultzea gauza bat da, baina jada idatzita dagoen esaldi baten hitz jakin batzuen ordez beste batzuk jartzea, hori oso gauza egokia da ordenagailu edo programa informatiko baterako, eta ziur nago oso emaitza onak emango litzukeela. Euskalkiak bultzatzeko izugarri balioko liguke, eta oso tresna ona izango litzateke, beraz, euskalkiei bultzadaxo bat emateko. Bide batez, guri, euskaldunoi ere oso pozgarria –eta irakasgarria– gertatuko litzaiguke euskara batuaz idatzi dugun testu bat beste euskalki batean nola gelditzen den ikustea. Egon daitezke berezitasun batzuk sintaxi aldetik, baina nik ez dut uste oso garrantzizkoak izango zirenik, euskalki guztien atzean euskara bakarra dagoelako eta euskararen arima sintaxia delako. Beraz, posible da mota horretako testu-aldaketak egitea emaitza absurdoetan jausi gabe. Horrez gain, denbora lagun, tokian tokiko euskalki-aldaerak ere sar litezke plataforma informatiko horren barruan. Programa honekin, esaterako, zukan idatzitako testu bat hitanora automatikoki pasatzeko aukera ere izan genezake. Egia da, emaitzak batzuetan pittin bat (edo oso) artifizialak izan daitezkeela, batez ere hitanoaren kasuan. Esaterako, zuk lege-hitzarmen bat idazten baduzu, idatzi behar den bezala, eta gero “hitanora” pasatzen baduzu, garbi dago hitanoaren zentzua erabat desitxuratuta geratuko litzatekeela, bere testuingurutik kanpo hura erabiltzen ariko zinatekeelako. Baina, bueno, gauzak ez dira bere senetik atera behar. Eta nire ustez, oso irakasgarria gertatuko litzaiguke horrelako programa bat izatea, eta asko lagunduko liguke hitanoaren forma estandarrak finkatzen eta hitanoaren adizkera dialektalak hobeto ulertzen, eta sufritu gabe (orain arte bezala). Horrez gain, euskara batutik euskalkietara itzultzeko kontuari berriro helduz, udaletan ere oso tresna interesgarria izan liteke. Adibidez, Bermeoko Udalak herriko jendeari bidaltzen dizkion idazkiak euskara batuaz ez ezik, bizkaieraz ere bidal liezazkioke, soil-soilik botoi bat sakatuta. Hori baino gauza sinpleago eta azkarragorik... Eta Bermeoko euskara programa informatiko honen barruan sartuta egongo balitz, euskara batuan edota bizkaieraz idatzitako testuak Bermeoko euskarara pasatzeko aukera ere egongo litzateke, testuak beste inori helarazi gabe, burokrazia-kontuei iskintxo eginez eta gasturik sorrarazi gabe. Nire ustez, ideia hau berez egingarria eta interesgarria da. Eta itzulpen automatikoak egiteko programa informatikoetan burmuinak (askotan alferrik) erretzen ibili beharrean, agian hobe izango zen lehenik hemen aipatzen dudan horrelako programa bat martxan jartzea, euskalkiei arnasa berria ekarriko liekeelako eta euskaldunoi euskalkien munduan barneratzeko tresna boteretsu bat eskuan jarriko ligukeelako.

2011-6-15